



## Enplegua TURISMO arloan

Gizarte Segurantzaren Afiliazioa

### METODOLOGIA

#### Turismo sektorearen afiliazioak

Turismoarekin loturiko jardura ekonomikoak zehaztea nazioarteko erakundeetako hainbat gomendioetan identifikatu izan da; besteak beste, Munduko Turismo Erakundea (MTE) eta Nazio Batuen Estatistika Batzordearenak. Turismoaren Kontu Satelitearen dokumentuan jasotako gomendioak erabili dira ustiapen honetan.

Zehazki, turismoarekin loturiko jardura ekonomikoak honako hauek dira (JESN-CNAE 2009 kodearen arabera):

- 55 Ostatu zerbitzuak
- 56 Jaki eta edari zerbitzuak
- 55+56 Ostalaritza
- 491 Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez
- 493 Bidaiariak garraiatzeko lurreko beste garraio batzuk
- 501 Bidaiarien itsas garraioa
- 503 Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik
- 511 Bidaiarien aireko garraioa
- 522 Garraioarekin uztartutako jarduerak
- 791 Bidaia-agentzien eta operadore turistikoen jarduerak
- 771 Ibilgailu motordunen alokairua
- 773 Beste makineria, ekipo eta ondasun ukigarrien alokairua
- 900 Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak
- 910 Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jardura batzuk
- 931 Kirol jarduerak
- 932 Aisialdi eta entretenitzeko jarduerak

Turismoaren sektorerako lorturiko datua, aldi berean sektoreko enpleguaren azpi-estimazioa da eta gain-estimazioa. Batetik, azpi-estimazioa da beste jardura batzuk kontuan hartu ez direlako zati batean turismoaren sektoreko jardueretara laguntzen baitute. Bestetik, gain-estimazioa da aukeratutako jardura ekonomikoek ez dutelako euren jardura garatzen Turismoa sektorerako soilik. Hau da, enplegu guztia ezin zaio Turismoari esleitu.

### Gizarte Segurantzaren altan dauden langileen afiliazio-fitxategiaren berriazko ustiapena

#### Helburuak

Estatistika-Organoak eginiko berriazko datu-ustiapenak Gizarte Segurantzaren altan dauden langileen fitxategia erabiltzen du. Honek turismo arloko jarduera adar ezberdinen enplegua ezagutzeko ahalbidetzen du.

Turismo sektoreko altan dauden afiliatuaren kopuruari buruzko informazioa eskaintzen dugu, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-CNAE 2009) jarraituz.

Kontuan hartu behar da afiliatuaren kopurua eta langileena ez da nahitaez zenbaki bera. Kotizazio-obligazio egoerak kalkulatu dira. Hau da, langile batek 2 lanpostu ezberdinetan aritzen bada, bi aldiz agertuko da afiliatu moduan. Gizarte Segurantzaren altan dauden afiliatuak honela sailkatzen dira:

- Soldatuko langileak edo inoren konturako langileak
- Autonomoak edo norbere konturako langileak

Jardueren % 100ek ez dute euren jarduera garatzen Turismoa sektorerako soilik. Hau da, enplegu guztia ezin zaio Turismoari esleitu.

#### Turismoaren sektore-produkzioaren duen partaidetza. Uneko prezioak (%). 2010

	Turistikoak	Ez turistikoak	Produktzioa guztira
Bidai-agentziak	100	0	100
Bidaiarien itsas garraioa	100	0	100
Bidaiarien aireko garraioa	98,8	1,2	100
Hotelak eta antzekoak	93,6	6,4	100
Ibilgailuen alokairua	22,8	77,3	100
Bidaiarien lurreko garraioa	18,4	81,6	100
Bidaiarien trenbide-garraioa	16,8	83,2	100
Jatetxeak eta antzekoak	16,6	83,4	100
Aisialdi eta kultur jarduerak	6,3	93,7	100
Garraioari lotutako beste zerbitzu batzuk	5,0	95,0	100
Higiezinak alokatzeko zerbitzuak	3,1	96,9	100

Iturria: EUSTAT. Turismoaren Kontu Satelitea